



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## ***EL FANTASMA DE LA ÓPERA*, Bilbo** **Aste Nagusian konkistatzeko prestatzen ari da**

- Luxuzko antzeztaldean ditugu **Gerónimo Rauch** ospetsua eta **Talía del Val** aktore eta abeslari bikaina; azkenak musikaleko emakumezko aktore onenaren **Talía Antzerki Saria** jaso du ekoizpen honengatik.
- **Arriaga Antzokiak 38 emanaldi eskainiko ditu abuztuaren 14tik — estreinaldiaren egunetik— irailaren 15era arte.**

**Bilbo, 2024ko ekainaren 25a.-** Arriaga Antzokiak ikuskizun musikal handi bat eskainiko du berriro ere uda honetan. Abuztuaren 14tik —asteazkenetik— irailaren 15era —igandera— ***El fantasma de la Ópera*** izango dugu Bilbon, Madrilen musikalen denboraldi honetako erreferente bihurtu den maitasun istorio handia. Ikuskizun hau, zeinak **Andrew Lloyd Webber**ren musika ahaztezina baitu, lau astez egongo da Arriagako programazioan, Aste Nagusia barne. Horrela, 2023ko irailean Madrilen estreinatu zenetik, musikal klasikoaren bertsio txalotu honek bisitatzen duen lehen hiria izango da Bilbo.

***El fantasma de la Ópera*** artista talde bikaina biltzen du, eta musikaletako antzezle handienetako batek interpretatuko du: **Gerónimo Rauchek**, hain zuzen (*Los Miserables*, *El Médico*...). Christine Daaé diva gaztearekiko ezkutuko pasioa sentitzen duen mamu oinazetu baten azalean sartuko da. **Talía del Valek** hezurmamituko du Daaé gaztea, *Los Miserables* edo *West Side Story* musikal handietan parte hartu duen abeslari eta aktore bikainak, izan ere, azken horrekin ikusi ahal izan genuen 2019an Arriaga Antzokian. Talía del Valen interpretazioaren kalitatea frogatu da, *El fantasma de la Ópera*ren ekoizpen honengatik musikaleko emakumezko aktore onenaren Talía Antzerki Saria jaso baitu. Antzeztalde nagusia osatzen dute **Guido Balzarettik** —Raoul Chagny bizkonde lerdenera eginez— eta **Marta Pinedak** —Carlotta sopranoarena eginez, hiriko operako *prima donna* eta izar lainezaz betearena—. Gogoan hartu behar dugu Balzarettik Arriaga Antzokiaren *La viuda alegre* ekoizpenean parte hartu zuela 2015ean.

Besteak beste, taula gainean izango dira baita ere **Fran Ortiz** (Piangi izeneko operaren tenoreari bizia emanez), **Enrique R. del Portal eta Omar Calicchio** (operaren jabeak diren Monsieur André eta Monsieur Firmin interpretatuz, hurrenez hurren), **Laura Martín** (operan aipatutako balleteko dantzari Meg Giry antzetzuz), eta **Silvia Luchetti** (Madame Giryren paperean, Meg Giryren ama eta 5. palkoaren aretozaina).

Kontuan izan behar da, halaber, **Manu Pilas eta Judith Tobella** mamuaren eta Christineren *cover* edo ordezkioak izango direla, hurrenez hurren.

***El fantasma de la Ópera*** obrak **Federico Bellone**ren zuzendaritza eszenikoa eta **Julio Awaden** zuzendaritza musikala ditu (azkenak ere Talía Sari bat jaso du ikuskizun

honengatik), eta, 1986an Londresko West End-ean estreinatu zenetik, 41 lurraldetako 160 milioi ikusleren aurrean antzeztu den ekoizpenaren lekukoa jasotzen du. Hala ere, protagonista bakoitzak bere ukitua ematen du, papera berrituz eta gaurkotasunera egokituz. Rauch da papera gaztelaniaz eta ingelesez antzeztu duen aktore bakarra, bera arduratu baitzen pertsonaia horretaz Londresko West End-ean, eta mamu psikologikoago bat aurkezten du, ez hain izugarria; Del Val, berriz, estutasunetan dagoen dama batek ohi duena bezain pasiboa ez den kutsu batekin iristen da ikuslearengana. Ikuskizunak ikusleak eta kritika maitemindu ditu bere ekoizpen finari esker.

### **Musikal arrakastatsuen**

1986an Londresen inauguratu zenetik, *El fantasma de la Ópera* ikuskizunak 160 milioi pertsonatik gora liluratu ditu 195 hiritan eta 21 hizkuntzatan. Horrez gain, 70 antzerki-saririk gora jaso ditu, tartean 7 Tony sari eta 4 Olivier Awards sari. Inoiz egin den musikalik arrakastatsuen da eta Broadwayko show urtetsuen izatearen marka du. 2004an, Joel Schumacher zuzendariak zinemarako egokitu zuen, eta Gerard Butler eta Emmy Rossum aktoreak izan ziren filmaren protagonistak. Espainian, emakumezko aktore onenaren eta musika-zuzendaritza onenaren bi Talía Sarietz gain, Antzerki Musikalaren Sarietako hiru eskuratu ditu: Soinu diseinurik onena (Roc Mateu), Argiztapen lanik onena (Valerio Tiberi) eta Eszenografiarik onena (Federico Bellone eta Clara Abbruzzesse).

### **Sinopsia**

Murgil zaitetz obsesio-espiral batean *El fantasma de la Ópera*ren bidez. Ezagutu maitasuna, heriotza eta hondamendia uztartzen dituen istorio zirraragarria, zeina antzerki baten errailetan mundutik ezkatututa bizi den musikaren jenio baten eta Christine izeneko ahots zerutierra duen neska gazte baten artean gertatzen baita; azkenak laster izango du maskararen azpian ezkatutzen den izuaren berri. Gai izango al da Mamuaren sorginkeriarri aurre egiteko, edo haren mundu ilun eta erokeriaz betera eramango du?

### **Sarrerak salgai**

Sarrerak badira salgai ohiko bideetan: [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean eta antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegietan. Musikalerako ezarritako prezioak 30 eurotik 69 eurora bitartekoak dira, deskontu ezberdinekin.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)

## **ARRIAGA ANTZOKIA - Emanaldien egutegia**

### **ABUZTUA**

ASTEAZKENA	14	19:30	ESTREINALDI OFIZIALA
OSTEGUNA	15	19:30	
OSTIRALA	16	17:30 eta 21:30	
IGANDEA	18	17:00 eta 21:00	
ASTEARTEA	20	19:30	
ASTEAZKENA	21	19:30	
OSTEGUNA	22	19:30	

OSTIRALA	23	17:30 eta 21:15
LARUNBATA	24	17:30 eta 21:15
IGANDEA	25	17:00
ASTEARTEA	27	19:30
ASTEAZKENA	28	19:30
OSTEGUNA	29	19:30
OSTIRALA	30	17:30 eta 21:30
LARUNBATA	31	17:30 eta 21:30

## **IRAILA**

IGANDEA	1	17:00
ASTEARTEA	3	19:30
ASTEAZKENA	4	19:30
OSTEGUNA	5	19:30
OSTIRALA	6	17:30 eta 21:30
LARUNBATA	7	17:30 eta 21:30
IGANDEA	8	17:00
ASTEARTEA	10	19:30
ASTEAZKENA	11	19:30
OSTEGUNA	12	19:30
OSTIRALA	13	17:30 eta 21:30
LARUNBATA	14	17:30 eta 21:30
IGANDEA	15	17:00